

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko uztailaren 24tik uztailaren 28rako astea


➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: PMI KONPOSATUA



Datuaren analisia

Euroguneko jarduerari dagokion PMI indize konposatua 55,8 punturaino jaitsi zen uztailean, ekaineko 56,3 puntuen aldean. Beherakada hori gorabehera, indizea bere maximo historikoetara iritsi zen uztailean. Zatika begiratuta, zerbitzuen sektoreko PMIa 55,4 puntukoa izan zen, aurreko hilean lortutako marka bera; eta manufacturen sektorekoa, berriz, 56,8 puntukoa (ekainean 58,7), azken zazpi hilabeteetako minimoa.

Adierazlearen azalpena

Euroguneko zerbitzuen eta manufacturen sektoretako 5.000 enpresari baino gehiagori hileroko bidaltzen zaien galdetegi baten erantzunetatik lortzen da PMI Konposatua. Bi sektore horien aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: FEDen BILERA

DONDE SE SITUARÁN LOS TIPOS

PROXIMAS REUNIONES PROBABILIDAD DE SUBIDA PROBABILIDAD DE RECORTE

Reunión	Hike Prob	Cut Prob	0.75-1	1-1.25	1.25-1.5	1.5-1.75	1.75-2	2-2.25	2.25-2.5
09/20/2017	5.6%	0.0%	0.0%	94.4%	5.6%	0.0%	0.0%	0.0%	0.0%
11/01/2017	10.3%	0.0%	0.0%	89.7%	10.0%	0.3%	0.0%	0.0%	0.0%
12/13/2017	41.8%	0.0%	0.0%	58.2%	38.0%	3.7%	0.1%	0.0%	0.0%
01/31/2018	42.2%	0.0%	0.0%	57.8%	38.1%	4.0%	0.1%	0.0%	0.0%
03/21/2018	60.9%	0.0%	0.0%	39.1%	44.5%	15.0%	1.4%	0.0%	0.0%
05/02/2018	61.2%	0.0%	0.0%	38.8%	44.5%	15.2%	1.5%	0.1%	0.0%
06/13/2018	68.3%	0.0%	0.0%	31.7%	43.4%	20.6%	4.0%	0.3%	0.0%
08/01/2018	68.8%	0.0%	0.0%	31.2%	43.2%	21.0%	4.3%	0.4%	0.0%
09/26/2018	74.3%	0.0%	0.0%	25.7%	41.1%	24.9%	7.2%	1.1%	0.1%

Datuaren analisisia

Aste horretan, Erreserba Federalak bilera egin zuen. Erakundeak interes-tasei eutsi zien, aurreikusita zegoen moduan. Gainera, etxeko ekonomiaren balorazio positibo egin zuen: jarduera ekonomikoak hobera egiten jarraitu zuen, baita lan merkatuak ere. Nolanahi ere, indize orokorraren eta azpikoaren ikuspuntutik, KPIaren bilakaera beherakorra izan zela adierazi zuen, % 2an ezarritako helburuaren azpitik kokatu baitziren. Bestalde, Erreserba Federalak aurreratatu zuen Balantzearen murrizketaren hasiera gertu dagoela, ekonomiak bizi duen une gozoa lagun.


Adierazlearen azalpena

Federal Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-politikako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren egonkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko erakunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren bitartez, enplegu erabatekoa, prezioen eraginkortasuna (inflazioa eta deflazioaren prebentzioa barne) eta epe luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen helburuak.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: BPGd

PIB USA (Contribuciones)



Datuaren analisia

Estatu Batuetako BPGd-ak urte arteko % 2,6 egin zuen gora urteko bigarren hiruhilekoan. Hazkunde hori 2017ko lehen hiruhilekoan erregistratutako datuaren (% 1,2) bikoitza baino handiagoa izan zen; bada, zifra hori bi hamarren beherantz berrikusi zen aurreko kalkulari dagokionez.

Kontsumitzailearen gastuaren gorako berrikuspenak zeresan handia izan zuen hirugarren aurreikuspenean BPGd-ak izandako gorakada horretan. Izan ere, kontsumitzailearen gastua jarduera ekonomikoaren bi heren baitira, eta % 2,8 egin zuen gora (aurrekoa % 1,1).


Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek

lurralde nazionalean ekoizitakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: KPI



Datuaren analisia

Kontsumoko prezioen indizeak (KPI) urte arteko % 0,4 egin zuen gora ekainean. Nolanahi ere, maitzarekin alderatuta, prezioek ez zuten gorabehera handirik izan.

Nahiz eta Japoniako Bankuak (BoJ) ekonomia sustatzeko plan masibo bat aktibatu zuen 2013an, datu horrek (elikagai freskoak alde batera uzten dituenak, hegakorregiak izateagatik) argi erakusten du Japoniako gobernuak inflazioa urte arteko % 2an kokatzeko helburua lortzeko dituen zailtasunak.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
07/31	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 4.8
07/31	Txina	Fabrikazioaren PMIa	51.5
07/31	Txina	Ez fabrikazioaren PMIa	--
07/31	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 9.2
07/31	Eurogunea	Urte arteko KPIaren kalkulua	% 1.3
07/31	Estatu Batuak	Chicagoko manufakturen indizea	59.0
07/31	Estatu Batuak	Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmentak	% 1.0
07/31	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	14.0
08/01	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
08/01	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	50.4
08/01	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	54.8
08/01	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	55.4
08/01	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	58.3
08/01	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	56.8
08/01	Eurogunea	Urte arteko BPGd SA	% 2.1
08/01	Estatu Batuak	YoY PCE zentrala	% 1.4
08/01	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	56.1
08/02	Japonia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	43.5
08/02	Espainia	Hileko langabezia-tasa	-70.0
08/02	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
08/02	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	195k
08/03	Japonia	PMI Nikkey composite Japonia	--
08/03	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
08/03	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	57.8
08/03	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	55.7
08/03	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	55.1
08/03	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	55.8
08/03	Eurogunea	Urte arteko xehekako salmentak	% 2.5
08/03	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	% 0.250
08/03	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
08/03	Estatu Batuak	Composite ISM ez manufaktura-sektorea	56.9
08/03	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	--
08/04	Espainia	Hileko industria-ekoizpena	% 0.1
08/04	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 4.3
08/04	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$45.6b

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Munduko burtsa nagusiek itxiera mistoak izan zituzten. Astea emaitza korporatiboen eta Erreserba Federalaren bileraren artean joan zen. Asteazkenean, erakundeak interes-tasei eutsi zien, aurreikusita zegoen moduan. Gainera, etxeko ekonomiaren balorazio positiboa egin zuen. Nolanahi ere, indize orokorraren eta azpikoaren ikuspuntutik, KPIaren bilakaera beherakorra izan zela adierazi zuen. Bestalde, Erreserba Federalak aurreratu zuen Balantzearen murrizketaren hasiera gertu dagoela, ekonomiak bizi duen une gozoa lagun. Bigarren hiruhileko enpresa-emaitzei dagokienez, balantzea zertxobait hobea izan zen AEBetan Europan baino. AEBetan, bestalde, baterako batzorde bat udazkenean zerga-erreforma berria prestatzen hasiko dela iragarri zuten. Horrez gain, errepublikanoek porrot egin zuten 'Obamacare' programa Senatutan indargabetzeko hirugarren saiakeran, Kongresuaren eta Senatuaren arteko negoziazio berri bati ateak irekiz. Amaitzeko, NDFk ekonomia-aurreikuspen globalak eguneratu zituen. Bada, gorantz berrikusi zituen Europarako aurreikuspenak, 2017koak zein 2018koak. Aitzitik, AEBetarako aurreikuspenak beherantz berrikusi zituen, bi hamarren gutxiago 2017rako eta lau gutxiago 2018rako, zerga-politika aurreikusitakoa baino murriztaileagoa izango dela espero baita.

ERRENTA FINKOA:

Erreserba Federalaren tonu baketsuagoak tasen beherakada ekarri zuen, baina makro datu onei eta petrolioaren prezioaren susperraldiari esker, zorren merkatuak errentagarritasunen igoerarekin amaitu zuen astea. Alemaniako hamar urterako tasak 4 op egin zuen gora, % 0,54raino. Haren homologo espainiarra 7 op igo zen, % 1,53raino, eta arrisku-prima 3 oinarrizko puntutan handitu zen, 98 punturaino. AEBetan ere mugimenduak gorakorak izan ziren: hamar urterako tasak 5 op egin zuen gora, % 2,29raino. Kreditu-merkatuan aldaketa gutxi.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Trumpek proposaturiko erreforma ekonomikoaren bideragarritasunari buruzko zalantza politikoei eta Erreserba Federalaren tonu bigunagoak dolarra zigortu zuten: % 0,64ko balioa galdu zuen euroaren aldean. Lehengaietan, berriz, petrolioaren prezioa % 9,01 handitu zen. Murrizketak 2018ko martxotik haratago luzatzeko aukerak, abuztuan esportazioak murrizteko Saudi Arabiak harturiko konpromisoak, Nigeria eta Libiak produkzioa murrizteko aukerak eta AEBetako inbentarioen beherakadak kotizazioaren lagungarri izan ziren. Urrea, aldiz, % 1,16 igo zen, 1.269,65 \$/ontza mailaraino.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2017
MSCI WORLD (Local)	1.481,38	-0,11	8,59
IBEX 35	10.536,10	1,05	12,66
DJ EURO STOXX 50	3.467,73	0,46	5,39
DJ STOXX 50	3.086,75	-1,01	2,53
FTSE	7.368,37	-1,13	3,16
S&P 500	2.472,10	-0,02	10,42
Dow Jones	21.830,31	1,16	10,46
NASDAQ	6.374,68	-0,20	18,42
NIKKEI 225	19.959,84	-0,70	4,42
MSCI EMERGENTES (Lo)	56.376,03	0,33	18,31
MEXBOL	51.213,60	-0,68	12,20
BOVESPA	65.497,13	1,26	8,75
SHANGHAI	3.407,06	0,47	4,85
Rusia Rts Moscú	1.014,44	-1,02	-11,97

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var 2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,68	-0,04	0,09
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,28	0,00	0,00
EE.UU 2 AÑOS	1,35	0,01	0,16
ALEMANIA 10 AÑOS	0,54	0,04	0,33
ESPAÑA 10 AÑOS	1,53	0,07	0,14
EE.UU. 10 AÑOS	2,29	0,05	-0,16
ALEMANIA 30 AÑOS	1,32	0,04	0,38
ESPAÑA 30 AÑOS	2,86	0,12	0,24
EE.UU. 30 AÑOS	2,90	0,09	-0,17
Spread de credito (pb)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	52,22	0,14	-19,82
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	234,76	-2,16	-53,94

Divisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,17	0,64	11,32
Yen / Euro	130,14	0,42	5,77
Libra/ Euro	0,89	-0,46	4,71

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Petroleo (Brendt)	51,66	9,01	-6,77
Oro	1.269,65	1,16	10,19

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.